

# B

BARREN

## Zailtasunaren tentazioa







Alberto Fernandez, eskalatzailea



**Klinikan %15eko deskontua  
implante tratamenduetan**

\* Beste deskontuei eta sedazioari ezin zaie gehitu deskontu hori. Tratamendu berrietarako eskaintzak 2009/02/01etik 2009/05/01era arte balio du.

 Aldaz Horts Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

-  implanteak eta horts fijoak egun batean
-  ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
-  “invasiling” ortodontzi ikusezina
-  haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)
-  pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
-  interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte

## Aupa Elgoibar!

Elgoibarko eskola kirolaren ardura herriko bost lagunek hartu dugu aurten. Guk koordinatzen dugu guztia, baita taldeak zein saioak antolatu eta horiek aurrera eraman ere. Horretaz gain, gu arduratzen gara larunbatetako jardunaldiez.

Honezkero hilabete batzuk pasa dira 2008ko irailetik. Hor hasi zen gure abentura. Guztiaren balorazio orokor bat egiteko une aiposean gaude eta halaxe egiten saiatuko naiz hurrengo lerro hauen bitartez.

Lehenik eta behin, zenbakietara joko dugu, hau da, erabiltzaile kopurura. Azken urteotan beherakada sumatu da, izan ere, haurrak gero eta lehenago espezializatzen baitira kirol batean zein bestean. Agian, goi mailara iristeko positiboa izan daiteke, baina, kontuan hartuta askok eta askok oso zaila izango dutela elitera iristea, ez dakit zein puntutaraino izan daitekeen egokia espezializazio goiztiarra.

Askotan guztiok ahazten dugu benjamin eta alebin mailetan gaudela, eta batzuetan Asobal edota BBVA ligan egongo balira bezala jokutzen dugu. Jokalariei, arbitroei zein instalazioei emaitza hutsa eskatzen diegu, eta ez diegu erreparatzen eskola kirolaren helburu nagusiei: ondo pasatzeari, lagunak egiteari, ohitura

osasuntsuak hartzeari eta aurrerago errendimenduan landuko duten kirola ezagutzuz gustua hartzeari. Helburu horiek baitira beti buruan eduki beharko genituzkeenak.

Bukatzeko, gurekin kolaboratzen duten klubek jarrera txalotu nahi dugu, izan ere beraiek gabe ez baitzen posible izango ezagutzen dugun sistema aurrera eramatea. Horretaz gain, larunbatero haurren ardura hartzen duten gurasoei eskertu nahi diegu erakusten duten ilusioa eta kemena.

Asier Arregi




"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan:  
943 74 41 12 edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

**"Askotan ahazten dugu benjamin eta alebin mailetan gaudela. Batzuetan Asobal ligan egongo balira bezala jokutzen dugu"**

## Blogari izan nahi?

**11 blogari ditugu dagoeneko.**

Zuk ere zure bloga nahi baduzu, jar zaitetz gurekin harremanetan: [elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com) helbidean.



**[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)**

**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**





# benito lertxundi

**Benito Lertxundik ez du aurkezpenik behar. Abeslari oriotarra oso ezaguna da Euskal Herrian. Kontzertua eskainiko du gaur, barixakua, 22:15ean Herriko Antzokian. Disko mordoa kaleratu ditu, eta berrogei urteko ibilbidea dauka bizkarrean. Abeslaria gertuagotik ezagutzeko, berarekin berba egin du BARRENEk.**

**Edurne Burgaña**

**“Ez dut inoiz onartu nire ahotsa, eta ez dakit arazoa ala zortea den”**



**Zeure burua mitotzat daukazu, Benito?**

Nire burua urte asko kantuan daramatzen kantaritzat daukat, hainbat belaunaldi pasatu dituena. Kontzientean naiz horrek arrastoa uzten duela, eta, nolabait esateko, halako gauza afektibo bat jasotzen duten horietako baten kontzientzia badut.

**Euskal kantagintzan zer abeslari gustatzen zaizu gehien?**

Mikel Laboa hil berria da, eta esan behar da nahiko berezia izan dela: oso berezi egin duen atal bat dauka. Hurrengo belaunaldian nabarmen dabilena Ruper Ordorika da. Baina esan beharra daukat askotan eskolak eta norabideak oso finkatuak eramaten direla tradizio luze bat dagoenean. Gure tradizioa gurekin hasi zen, eta berrogeita gutxi urte ditu.

**Oriotarra izanda, arrauna gustatzen zaizu?**

Bai, noski. Arrauna gustatzen zait: oso

umetatik daramat. Batzuetan odolean daramagun zerbait dela pentsatzen dut.

**Haserre egon nahi nuke dio zure abesti batek. Zerk haserretzen zaitu?**

Garai bateko kantua da, eta haserre egoteko motiboak beti daude, gauzak begiratzeko era ezberdinak daudelako. Gauzak begiratzean, beste modu batera izan beharko lirakeela, eta hori exijentzien bidez lortu daitekeela pentsatzen duzun bitartean, gustuko ez duzun paisaiak haserretu egiten zaitu. Bestalde, gaur egun beste modu batean esango nuke: haserre nago edo ez nago. Haserre ez nago, baina egon nahi nuke; ez dut hori oso ondo ulertzen. Azken finean badakit ez dudala mundua aldatuko. Neure burua alda nezake, baina besteak ezin ditut aldatu. Hori oso ongi ulertzen dut gaur egun: neure mundua alda nezakeela, eta hain zuzen, aldatzen dudana heinean mundua ere aldatzen ari naizela.



## Zure emaztea amodiozko poema horrekin konkistatu zenuen?

[Barreak] Tituluak askotan metaforikoak egiten dira. Amodiozko poemak ez du zertan emakume batentzako izan: amodiozko poemak herri bati, gertakizun bati edo istorio bati egin dakizkioke.

## Egunsentiko ametsetan zer amesten duzu?

Aro gautiarra nuen lehen: gauzez egiten nuen lana, eta egunsentiarekin oheratzen nintzen. Guztiz alderantziz bizi nintzen. Doinu bati jarri nion izen hori, eta ondo gogoratzen dut eguna: gau hartan, goizaldean begiak kizkurtzen ari zitzaizkidala, instrumentu bat ari nintzen jotzen, eta doinu bat nerabilen bueltaka. Egunsentia ari zen etortzen, txoritxoak hasi ziren kantatzen, eta gainera oso egun argia zen. Geroztik, grabazio hori entzuten dudan bakoitzean, egunsenti hura etortzen zait burura: begiak ixten, eguna oso bizkor etortzen; eta tartean doinu hori.

## Zein da zure herriko neskatxa maite hori?

[Barre algarak] Zenbatgarrena ote zara zu? Ez da derrigor bakar bat izan behar.

## Harpa nork jotzen dio nori: emazteak zuri, ala zuk berari?

Hori ez da gauza finko bat: batzutan batak besteari, eta hurrena beste horrek bati. Eta horrela ibiltzen gara.

## Disko mordoa dituzu, zerk inspiratzen zaitu abesti bat sortzerakoan?

Orain ere gauari pixka bat eusten diot, baina lehengo pasada bat zen: egunsentiarekin oheratzen nintzen. Egunsentirako lo dezentte egina egoten naiz orain. Inspirazioa lehen haize bolada moduan ulertzen dut: ez dakigu nondik etortzen den. Bizitzatik etortzen da. Bizitzen zoaz, eta bidean bihozkada bat edo gertakizun bat, eta burutapen bat edukitzen duzu, honetaz edo hartaz. Hori hari muturra izaten da eta mutur horri tiraka hasi behar duzu lana egiten duzun tokian. Nik etxean egiten dut lana, estudiotxo bat daukat, eta hor gauzatzen dira kantuak. Baina hari mutur hori non agertzen den? Auskalo!

## Urteen poderioz asko aldatu zaizu ahotsa.

## Abestiak moldatu behar izan dituzu tonu berrira?

Badira adibide batzuk munduan: kantari batzuek euren ahotsa inoiz onartu ez dutenak. Horietako bat nauzu ni. Ez dut inoiz onartu

nire ahotsa, eta ez dakit hori arazoa ala zor-tea den. Hori dela-eta hasten zara bilatzen: hori egin, hura egin... "hau ez zait gustatzen...". Sufritu egiten duzu, ez duzu zure burua gustura entzuten. Berrogei urte dar-matzat beti zerbait ezberdina bilatzen: ez dut behin ere esan, hau da nire ahotsa, eta kito! Beti ari naiz zerbaiten bila eta horrek egin du oso mugikorra izatea. Garai bateko ahotsak eta gaurkoak ez dute zerikusirik.

## Zer izango zinateke gitarrarik gabe?

Auskalo! Bizitzak nondik norako bidea egiten duen ikustea bitxia da. Zenbat gauza gertatzen dira inoiz pentsatu ez ditugunak... Hamazazpi urterekin atletismoa egiten nuen, eta nire helburu nagusia kirolari ona izatea zen; amets guztiak hortik zihoz-az. Horrekin batera, koroetan kantatzen nuen, eta erlojugile izateko ikasten hasi nintzen, eta gitarra bat erosi nuen. Eta gitarra horrekin kanta batzuk kantatzen hasi nintzen: horrek lehiaketa batera aurkeztera eraman ninduen, eta han nengoela Ez dok Amairu sortu zen. Ez nuen sumatu ere egiten bide honetatik ibiliko nintzenik. Azke-nean, garena gara.

## Ametsik gabeko loa. Zerk kentzen dizu loa?

Loa gehienetan buruko kezkek kentzen dute. Loa, gehienbat, bizitza ez aproposa egiteak kentzen du. Hau da, kontraesanak egotea, horrekin kezkek daude, tokia bilatu ezina... Gaur egun asko hitz egiten da depresioaz. Guzti horrek nondik norakoa dauka, eta horrek kentzen du loa. Bizitza orekatua eta sanao eginez gero, gauzak begiratzen ikasiz gero, bere horretan ikusi eta gero, digestioa ondo egitean, lotara jo-atean, lo egiten duzu. Oso naturala da lo egitea, baldin eta bizitza naturala egiten baduzu. Bizitza antinaturala egiten denean, gauza naturalak ez dira behar bezala egiten.

## Zergatik utzi kantatzeari?


Horixe diot neuk ere. Beti uzten diogu gauzak egiteari beste zerbait etortzen delako. Ezin bat etortzen delako, eta lehen egiten zenuen hura, orain egiten ez duzulako. Bizitza horrelakoa da. Baina momentuan, zergatik utzi kantatzeari, ez baitago inolako eragozpenik?

## Biografia

Benito Lertxundi Orion jaio zen, 1942ko urtarrilaren 6an. Bera izan zen sendi apal bateko bederatzai anai-arrebetatik azkena. Jaiegun handietan eta familiarakoak bildutakoan kantatzen bazuten ere, ez zen musikaririk haien artean.

Hemeretzi urte zituela, erloju denda batean hasi zen lanean, Martin Lizasorenean. Erlojuak konpontzen ikasi zuen orduan, baina baita besterik ere. Egun batean Lizasok laute bat laga zion. Gogokoa izan zitzaion non-bait, eta hurrengo pausoa gitarra elektrikoa erostea izan zuen.

Kantu txapelketa batean parte hartu eta aukeratu egin zuten. 1965 urte inguruan zen, eta Ez Dok Amairu mugimendua ari zen mamitzen, eta Mikel Laboak deitu zion Lertxundiri. 1972 aldera desegin zen Ez Dok Amairu, baina Lertxundik hasia zuen bere ibilbidea: urte bat lehenago kale-ratu zuen bere lehen lana: *Benito Lertxundi*, besterik gabe.



# ELGOIBAR

## HANKAZ GORA



Urtea hastearekin batera, Elgoibarren obrak hasi ziren. Herrira sartu eta hankaz gora daude kale guztiak. Baina Ricardo Garate hirigintzako zinegotziak behin eta berriz esan du “pazientzia” behar dela. Obra batzuk amaitzeaz daude, hasi berri beste batzuk. Hala ere, oro har, urtearekin batera amaituko dira guztiak. “Obrak amaitutakoan elgoibartarrek kalitatezko hirigune irisgarriak, ibilgailu gabekoak eta iraunkorrak edukiko dituzte”, nabarmendu du Garatek.

Edurne Burgaña



Goian, Santa Ana kalea, ezkerrean Antonio Arrillaga eta eskuman San Inazio kalea. Hilabete geratzen da obrak bukatzeko. Aurrekontua 538.419 eurokoa da.



Trenbide kaleko lanak ia-ia amaituta daude. Maiatz hasierarako amaituko dute guztia.

Ubitarte Buruko babes ofizialeko etxebizitzak. Maiatz hasieran banatuko dituzte etxeetako giltzak.



**RICARDO GARATE**  
**Hirigintzako zinegotzia**

**Elgoibarren obra mordoia egiten ari zarete, zergatik guztiak batera?**

Bakoitza bere epean hasi da, baina lehen hasitakoak geroago hasitakoekin batu dira prozesuagatik. Urte honetan egiteko aurreikuspena geneukan. Eta oraintxe egin behar dira guztiak.

**Zelan aukeratzen dira hiri-altzariak?**

Baranda, adibidez, altzairu herdoilezinak ari gara jartzen Elgoibarren; eta eserleku mota ere aukeratuta daukagu. Plazako harrizko jarlekuak dira herriko ofizialak. Baina, oro har, arkitektoek eta diseinatzaileek aukera-

**“Pazientzia eskatu genuen hasieran eta pazientzia eskatzen jarraitzen dugu”**

tzen dituzte. Zuhaitzei eta landareei dago-kienez, urte osoan zehar enpresa batekin egiten dugu lan lorategiak-eta mantentzeko, eta eurek gomendatzen digute urtarorearen arabera zein lora jarri.

**Obrak adjudikatzeko zer ezaugarri edukitzen dituzue kontuan?**

Kontratazio prozeduraren helburua Udalarentzako ekonomikoki onena den proposamena aukeratzea da. Irizpide erabilienak prezioa, exekuzio-epaia, memoria teknikoa, proiektuaren hobekuntzak eta bermeak dira. Legediak ez ditu diskriminatzaileak izan daitezken irizpideak kontuan hartzea onartzen, jatorriarena adibidez.

**Elgoibarren ez da haurrentzako parke estalirik. Madalakoa estaltzeko asmorik bai?**

Hasieran, ez da estalita egongo; baina karpa jartzeko aukera dago. Lurrean ainguralekuak jarriko ditugu, eta han lotzeko aukera egongo da.

**Orain egiten ari diren obra guztiek, zer aldaketa ekarriko dituzte herrian?**

Aldaketa nabarmenena oinezkoentzako guneak handitzea da. 11:00etatik aurrera, Herriko Antzokitik Sigmako zubira arte oinezkoentzako bidea izango da.

**Baina obrek iraun bitartean, oztopoak daude nonahi...**

Pazientzia eskatu genuen hasieran, eta pazientzia eskatzen jarraitzen dugu. Eta oinezkoak kontuz ibiltzeko, istripu pare bat ere egon dira eta. Obrak amaitutakoa elgoibartarrek kalitatezko hirigune irisgarriak, ibilgailu gabekoak eta iraunkorrak edukiko dituzte eskura. Aukera hau aprobetxatu nahi dut elgoibartarrak erakusten ari diren ulermena eta pazientzia eskertzeko.

**Pedro Muguruzan irisgarritasuna hobetu duzue, baina aparkalekuak gutxitu dira.**

Pedro Muguruza kalean ez dut uste aparkalekuak galduko direnik: autoak aparkatzeko era aldatuta, baterian aparkatuta, plaza bat edo bi bakarrik galduko lirateke.

## ERREPORTAJEA



Madalako parkea. Apiril amaieran bukatuko dira beharrak: 1.116.591 euro balio du obrak.



Errotondatik herrirako sarbidea inguru honetatik pasatuko da.



Pedro Muguruza kalea. Espaloia egin dute oztopo arkitektonikoak kentzeko.



Olasoko errotonda urte amaierarako bukatuko dute. 2,7 milioi euroko aurrekontua dauka. Foru Aldundiak milioi bat euro eta erdi bideratu ditu lan horretarako.



Pedro Muguruza kalea. Oraintxe bukatuko dute, baranda eta antzeko pare bat kontu falta dira jartzeko: 147.317 euro.





**Madalako parkeko haurrentzako jolas-gunea estali egin beharko lukete:** “Ez dakit Udalak zer asmo daukan, baina uste dut lehengo antzekoa izango dela Madalako parkean egingo duten jolas-gunea, nire ustez, estali egin beharko lukete. Hemen euri asko egiten du, eta umeekin egoteko leku gutxi dago herrian. Estalitako jolas-guneak behar ditugu”.



**Elgoibar BH Institutoko irakasleak merkataritzako ikasleak txalotu nahi dituzte:** “Zorionak horrelako eskaparrate dotorea jartzeagatik! Segi horrela!”.



**Pila kontenedoreak jarri dituzte herriko hainbat lekutan:** “Herriko hainbat lekutan piletzako edukiontziak jarri dituzte, eta hori txalotzekoa da. Natura denon artean zaindu behar dugu, eta horrelako ekimenak garrantzitsuak dira. Orain herritarrak kontzientziaztea falta da, eta horretarako kanpainak sustatu beharko lirarteke. Bizilagunon esku dago, hein handi batean, ingurugiroa zaintzea, eta, denok pixka bat eginez, asko lortu dezakegu. Hurrengo pausoa, olio birziklatzeko edukiotziak jartzea izan beharko litzateke. Mila esker”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12



ESKERTZA

## PELLO ARAKISTAIN ALBIZU

*Makina bat argi  
berrogei urtean  
orain ilargi etorkizunean  
beti pizturik  
gure bihotzetan.*

*2009ko martxoaren 8an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

**Nik sinatu dut!!!**

Azken urte eta hilabeteotan, hamaika izan dira euskal preso politikoen defentsan eginiko herri ekimenak. Larri gaixorik daudenak eta kondena beteeta duten presoak kaleratzearen aldekoak eta, oro har, euskal preso politikoen eskubideen aldekoak izan dira herri honek aspaldidanik eginiko aldarrikapenak.

Aurrera begira ordea, beharrezkoa ikusten dugu herriaren posizio hartzeaz gain, eragile politikoez ere beraien postura argi erakuts dezaten. Posizio hartze horren oinarriak jendeartearen eta gizarte eragileen babesak izan behar du, horrek emango baitio afera honi behar duen zilegitasuna.

Horretarako, Euskal Herriko udaletako osoko bilkuretan eta, ondoren, bi legebiltzarretan, jarraian aipatutako hiru puntuen inguruko posizio hartze bat egin dezaten eskatuko dugu sinadura bilketa honen bitartez:

- Gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoez berehala aska ditzatela.
- Biziarteko zigorra ezartzeko neurriak bertan behera utzi ditzatela: kondena beteeta duten presoak kaleratuz eta kalean dauden preso ohiak bakean utziz.
- Euskal preso politikoez euskal herritaruak izan daitezela, sakabanaketa eta bakartze politikarekin amaituz eta beraien eskubideen jabe izanez.

Beraz, zure sinadura ere beharrezkotzat jotzen dugu, goian aipatutako hiru puntu horien aldeko aldarrikapen ozen bat irten dadin Elgoibarko udaletik.

Sinadurak emateko, larunbatero,

11:30etatik 13:00ak arte Kultur Etxeko atarian eta astean zehar, Txuri Beltz eta Iratxo tabernetan prest egongo diren orrietan eman ahalko dira.

Beraz, adi egon eta sinatu, sinadura bakoitzak balio handia izango baitu herri honek bizi duen egoerari soluzio bidea irekitzeko.

**Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua**

**ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA**

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 📠 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:





Maialen Olazabal

Kaixo, Ane!

Gaurkoan bidaia gastronomiko batekin natorkizu. Aurreko ostiralean, Albizturren izan nintzen lagun baturekin babarrunak jaten. Bai,

bai, Albizturgo babarrunak! Iratiren amak goxo prestatu zizkigun su epelean aza, odolki eta guzti.

Urrakiren gonapeko herri txiki bat da Albiztur. Eguzkiak goxo epeltzen zuen ostiral eguerdi hartan. Kaleak garbi, balkoiak txukun eta etxe ingurua dotore. Kanean gora eta behera lasai paseatu genuen, eta herrikoek jator agurtzen gintuzten: *eguerdion neskak, zemuzeate, nongok zeate ba, egun ona pasa...* Gertu sumatzen genituen denak, eta gu ere berehala bertakotu ginen. Gustura eta lasai ibili ginen, egun osoan ez zidan inork irribarrea aurpegitik kendu, eta badakit berriz ere bueltatuko naizela.

### “Zure esku dago atsegin duzun bidaia horretara gu gonbidatzea”

Askotan hiri handietako kaleetan galtzen gara, ezezagunen artean. Gauza bakoitzak alde onak eta txarrak dauzka. Egun bakoitzak, momentu bakoitzak, helburu bakoitzak... txoko bat du. Nik, ordea, argi daukat zer nahiago dudana.

Badakit, Ane, Oliteko kale galduak atsegin dituzula, Elgoibarko plazako giroa, Parisera joateko desiratzen zaudela, eta Gasteizko kaleak ez dituzula ahaztuko. Baina orain zure esku dago atsegin duzun bidaia horretara gu denok gonbidatzea. Ea zein aukeratzten duzun...

Muxu bat.



Ane Odria

Bonjour, Maialen!

Gustura sumatu zaitut herri txikiaren goxotasunean, herritarrengandik gertu eta bertakoa bazina bezala. Ondo dakizun moduan, niri ere asko gustatzen zaizkit horrelakoak, baina egindako azken bidaia hau guztiz bestelakoa da. Paristik idazten dizut, Maialen, Parisen handitasuna bertatik bertara ikusten dudana hegazkin honetatik.

Lau egun hauetan irentsi egin naute txoko handi zein txikiek, liluratu kaleko artistek, harrapatu aniztasunaren atzamarrek. Hitz bitan esateko: maitemindu, Parisek. Hiri handi honen atzean zenbat jende eta bizimodu desberdin dagoen jakingo bazenu! Egunotan bizitakoa besterik ez daukat gogoan aieratzera goazen honetan, eta, egia esan, nahiagoko nuke hegazkina apur bat beranduago irtengo balitz. Motz gelditu zait bidaia, jakin baitakit Parisek hau eta gehiago daukala niri erakusteko. Izan ere, Paris handia da oso, baina Parisen handitasuna txoko txikiek ere egiten dute, eta horiek ezin dira lau egunean ikusi.

### “Ahal bezain laster, berriro ere Parisen magian galduko naiz. Animatzen zara?”

Ez ditut, hala ere, Parisko giroa, Oliteko kale galduetakoarekin edo Elgoibarko plazakoarekin alderatuko, eta ez dut hiruetatik bakarra aukeratu. Aitak dioen moduan, betaurrekoak aldatu behar dira batetik bestera joateko; ezin Parisko betaurrekoekin Elgoibar edo Olite bezalako herri txiki baten xarma ikusi, ezta alderantziz ere. Hori bai, ziur esaten dizut Maialen, Parisi au *revoir* baino, *à bientôt* esan diodala, eta ahal bezain laster berriro ere bere magian galduko naizela. Animatzen zara?



Elgoibarko Udala



## Azkoititik iritsiko da Korrika Elgoibarrera apirilaren 2an, 22:15ean

AEK-k hainbat ekintza antolatu ditu euskararen aldeko ekimenari ongi-etorria emateko

**A**tzo hasi zen Korrikaren 16 Tute-ran, eta apirilaren 5ean amaitu-ko da Gasteizen. “Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira” le-mapean egingo da aurtengo lasterketa, kanpotik euskararen mundura etorri di-renei omenaldia egiteko asmoz. Elgoi-barrera datorren egunean iritsiko da Korrika, apirilaren 2an, 22:15ean.

### Ibilbidea

Azkarateko ganean hartuko dute elgoi-bartarrek lekukoa. San Antolinera hel-dutakoan, errepide zaharretik jarraituko du, Karkizano gaina hartu arte. Ondoren, San Pedro kalea, Meliton eta Pe-dro Muguruza etorbidea pasatuta, Er-muaranbideko errotondara iritsiko dira lasterkariak. Bertan, ongi-etorria egin-go diete herritarrek, Bernardo Ezenarro kalean zehar jarraitzeko. Ondoren, Pe-dro Migel Urruzuno, Nafarroa Plaza, Errosario kalea, Plaza Handia, San Bar-tolome kalea, Nafarroa Plaza, Pedro Migel Urruzuno, Bernardo Ezenarro,



Ermuaranbideko errotonda, Pedro Mu-guruza, Meliton, San Antolin eta Altzola pasatuta, Mendarorantz abiatuko dira.

### Hainbat ekintza

AEK euskaltegiak hainbat ekintza an-tolatu ditu Korrikari ongi-etorria egiteko: Ikastetxeetako ikasleek Korrika Txikia

egingo dute 15:15ean hasita. Arratsalde-an, Mauxitxa txarangaren kalejira izango da, eta 20:00etan afari-merienda egingo dute Plaza Txikiko arkupeetan. Afaloste-an ere jardungo du txarangak herriko ka-leak alaitzen, eta 22:15ean Ermuaranbi-deko errotondan egingo diete ongi-eto-rria Korrikari.

## Batzar Nagusietako autobusa bisitatzeko azken eguna izango da gaur



Batzar Nagusietako Mahaia eta erakunde horretako Rafaela Romero lehendakaria izan ziren eguaztenean Elgoibarren. Alfredo Etxeberria alkatearen eta Udal korporazioaren agurra jaso ondoren, Gipuzkoako 88 udalerrri bisitatzeko ari den autobus tematikoa aurkeztu zuen Rafaela Romerok: “Legealdi honetan daukagun ekimen garrantzitsua herritarrei hurbiltzera etorri gara, Batzar nagusiak ezagutzera emateko, eta zer diren erakusteko: hainbeste maite dugun Gipuzkoa honen oinarria”, azaldu zuen. Hilaren 20an iritsi zen autobusa Elgoibarrera, eta gaur arte egongo da Nafarroa Plazan bisitatzeko aukera.

Elgoibarrek Gipuzkoako ekonomian duen garrantzia ere azpi-marratu zuen Romerok prentsaurrekoan. Horrez gain, Jaime Arrese ekarri zuen gogora: “Elgoibarko alkatea eta legebiltzarki-dea izan zen 70eko hamarkadan; eta, baita, bere herri maiteko balkoian ikurriña eseki zuen aurrenekoa ere bai, harik eta totalita-rioen indarkeriak erail zuen arte. Jaso beza gure errekonozimen-dua terrorismo eta indarkeriaren biktima guztiekin batera”.

## Izena **Natalia Mellado**



Natalia Mellado abeslariak ia hogeit eguneko bira egingo du Errusian zehar, bere dantza konpainiarekin batera. Martxoaren 31tik apirilaren 18ra bitartean, Errusiako hainbat hiritara, tartean Siberiako paraje hotzetara, eramango dituzte doinu eta dantza flamenkoeen berotasuna. Hamar lagunek osatzen dute Natalia Melladoren konpainia; bost dantzarik eta bost musikarik. Handik itzultzean, Manolo Escobarrekin eskainiko du kontzertua, maiatzaren 28an Madrilan.

## Berbia **Lapurreta**

Osoro zapata dendan 80 zapata paretik gora ostu zituzten martxoaren 7an. Ateko sarraila kenduta sartu ziren dendara lapurrak eguerdian, eta biltegiko oinetakoak ostu zituzten. Camper eta Panama Jack markako gizonetzkoen oinetakoak eraman zituzten. Bestalde, martxo hasieran Jausoro Plazako Gys Sport dendan lapurretan egin zuten. Gauez sartu ziren orduan lapurrak, dendaren aldamenean dagoen garajetik, eta bertan zegoen autoaz gain, udaberriko jantziak eta oinetakoak eraman zituzten. Gau berean, Santa Klarako Viñaras tabernan ere sartu ziren lapurrak, eta makina txanponjalean zegoen diru guztia ostu zuten.

## Irudia **Zuhaitz Eguna**

Zuhaitz Eguna izan zen martxoaren 17an, eta herriko ikastetxeetako ikasleek, 25 haritz inguru landatu zituzten Albitxuri inguruan. Herri Eskolako, Elgoibar Ikastolako eta Pilar Ikastetxeko LHko 6. mailako 90 bat gazte inguru bildu ziren guztira, eta udaletxeko langileen gomendioak jarraituz egin zituzten landaketa lanak. Amaieran, mokadua eta freskagarria jaso zituzten.



## **Elgoibarko Izarra kultur elkartearen batzar orokorra**

Elgoibarko Izarrak martxoaren 30ean egingo du bazkideen urteko batzar orokorra. 2008ko memoria azalduko dute proiektuetako teknikariek, eta ondoren, 2009rako asmo eta helburuak aurkeztuko dizkiete bazkideei. Batzarra 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## **Sinadura bilketa, presoeri buruzko mozioa aurkezteko**

Gaixorik larri dauden presoek eta kondenak beteak dauzkatekeneren kaleratzea eta, oro har, euskal preso politikoen eskubideen aldeko sinadura bilketa jarri du abian Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. Euren nahia, udaletxean preso gaixoen aldeko mozioa aurkeztea da, eta horretarako 1.400 sinadura behar dituzte. Zapatuero, 11:30etik 13:00etara, batuko dituzte sinadurak Kultur Etxeko atarian, eta astegunetan Txuri Beltz eta Iratxo tabernetan.

## **Bonba abisu faltsua Mintxetan**

Mintxetan bonba abisua jaso zuten martxoaren 20an, eta Ertzantzak instalazioak hustu behar izan zituen. Bertan zegoen jende guztia igerilekuetako zonaldera eraman zuten, baina Ramon Mujika Patronatuko arduradunak esandakoaren arabera, berehala itzuli ziren ohiko egoerara.

## **Debabarreneko Gazte Eguna izango da bihar**

Debabarreneko Gazte Eguna egingo dute bihar Elgoibarren. Eguerdiko 13:00etan izango da harrera ekitaldia Plaza Handian, ondoren triki-poteoa egingo dute, eta 14:30ean herri bazkaria izango Gaztetxean. Arratsaldean, "independentziaren bila" jolasa, eta manifestazioa izango dira, eta gauean kontzertuak.

# Amalurra

## Ortua, etxetik gertu

**U**daberriak eguzkia eta giro lehorra ekarri ditu aurten. Egun paregabeak izan dira baratzea prestatzen hasteko. Han-hemenka ikusi daitezke lur prestatu berriak.

Baratzeak baserritik gertu egon izan dira gehienetan. Lehen, ortu handiagoa zuten herrigunetik gertu zeuden baserriek, barazkiak saltzeko. Lerun Txiki baserrian, esaterako, 40.000 porru aldatu zituzten orain urte batzuk. Apartatuta zeuden baserriek, berriz, etxerako baratza baino ez zuten izaten gehienetan, azokara heltzeko zailtasunak zirela-eta.

Etxe ondoko lur sailik lauena erabili izan dute baserriarrek ortua jartzeko, ahal dela eguzki-begian.

### Etxeko andrearen ardura

Etxekoandrea arduratzen zen baratzeaz, oro har, horrexegatik zegoen etxebizitzatik gertu. Sukaldetik hurbil egoteak lana errazten zuen. Gainera, askako ura erabili zitekeen baratza ureztatzeko, ereiteko edo landareak aldatzeko.

Ortua ixteko, horma egiten zuten baserriarrek, harri lehorrez. Dena den, abereak ez sartzeko bazen beste modu bat (*lueia*): buelta guztian zanga bat egiten



zuten; hesolak jartzen zituzten gero, eta elorriarekin egiten zuten itxitura. Zanga horren ertza aprobetxatzen zuten, haritz, gaztainondo edo beste landare batzuen mintegi edo hazitegia egiteko.

Elgoibarko orografia kontuan hartuta, baserri asko aldapetan daude. Lurra be-

hera ez jausteko eta lana errazteko terrazak edo mugak egiten zituzten.

Iturria:

Koldo Lizarralderen *Agricultura en Elgoibar* koadernoan (*Eusko Folklore*-ren urtekaria).

## Sasoian sasoikoa

### Porrua

Egipto, Mesopotamia, Israel eta Turkia aldean sortu zen porrua, adituen arabera. Orain dela 5.000-6.000 urte, jaten zituzten porruak, inguru horietan. Gehienbat, Erdi Aroan zabaldu zen porrua Europan, goseari aurre egiteko. Euskal Herria leku aproposa da porrua ekoizteko.

Negua eta udaberria dira porruak jateko sasoirik onena. Berakatzaren antzeko propietate sendagarriak dauzka.

Bestalde, ilarrak ere hasiak dira jasotzen (Ordizian kiloa 13 euroan, joan den astean). Gainera, sasoiko produktu hauek eskuratu daitezke: bildotsa, babarrunak, babak, kalabaza, tipula, patata, espinaka, bruselako azatxoak, berakatz, brokolia, kogolloa, letxuga, lollo arrosa, aza, azalorea, eskarola, apioa, berakatz freskoak, borrajak, azelga, tipulina, erremolatxa, azenarioa, txikoria, intxaurra, urra, sagarra eta kiwia.



## Jabi Mugerza Betizu elkartekoa



## Jaietarako ganadutegia martxan jarri du kaletik baserrira joandako gazte batek

**Jaiotzez kaletarra da Jabi Mugerza, baina ume-umetan esaten zion amamari baserria jaso nahi zuela. Ahaleginak eta bi egin arren, amamak ezin izan zion inoiz ametsa burutik kendu: orain sei bat urte hasi zen borda eraikitzen, Aiastia-San Migelen. Han du bizilekua, eta han ditu ganaduak. Gainera, Betizu elkartean buru-belarri dihardu. Era berean, beste proiektu bat martxan jarri berri du: El Ruso izeneko ganadutegia sortu du, jaietan eta zezentxo eta poniak eskainiz. Zereginik, behintzat, ez zaio falta.**

**F**amiliaren gaitzizena erabili du Jabi Mugerzak ganadutegia martxan jartzeko: El Ruso. Aurrentzean, jai eta ospakizunetan zezentxo eta poniak alokatuko ditu gazte elgoibartarrak.

Halakoetan esperientzia badu Jabik. Izan ere, Elgoibarko sokamuturrean jardundakoa da. Orain, berak hazitako bigantxak alokatuko ditu. Zenbat abelburu dauzkan argitu ez badu ere, jatekoa eman behar zaienean “asko” direla aitortu du. Ganadu batzuk etxe inguruan dauzka, baina Lasturren eta Arno mendian ere badauzka beste buru batzuk.

Proiektuarekin hasi berria da, eta oraindik ez du ate askorik jo. Hala ere, El Rusoren bigantxak ibili izan dira Nafarroa aldeko jai batzuetan.

### Kaletik baserrira

Orain dela urte batzuk aukera izan zuen Jabik kaletik Aiastia-San Migelera joateko. “Borda bat egin nuen, eta han dena neuk egin nuen, beste teknikoekin laguntzarekin”.

Aurretik etxegintzan ibili gabekoa zen. “Lehenengo txabola txiki bat prestatu nuen, trasteak-eta gordetzeko, eta gero borda handiagoa egin nuen”, azaldu du. “Lehenengo pentsatu. Eta gero, egurra, amaitu arte”.

Baserri mundura gerturatzea gogor samarra egin zitzaion, baina gustura dago. “Es-

perientzia polita izan da. Atzera eginez gero, berriro egiteko posibilitatea edukiko banu, egingo nuke”.

Jaietarako abereez gain, betizuak, zaldiak eta beste abere batzuk ere baditu. Baratzean, ordea, ez du jarduten. “Ortua ipini nuen urte batean, baina bakarrik nabil, eta ez daukat astirik”, kapoan lan egiten du-eta. Itxiturak, tratamenduak, erosketak, erropa garbitu, txakurrak... egunak ez dio gehiagorako ematen.


### Betizuak

Orain dela urte gutxi, betizuak hazteari ekin zion. Betizua Euskal Herriko basa-behi arraza da. “Pena ematen zidan: historiaurrean etorritako ganadua da, euskal mendietan ibili-

takoa, eta galtzeko arriskuan zegoena”. Horrexegatik “promesa” egin zuen: bizi den artean, behintzat, betizuak ez dira galduko.

Betizua animalia basatia da, berez. Idiskoiak topatzea oso zaila da, odolkidetasun arazo handiak izaten dira-eta. Betizu Elkartearen birtartez, liburu genealogikoa egiten dabilta, idiskorik politenak gordetzen dihardute...

Betizuak “*Vaquilla* erako manejoa dauka”. Okela produkziarako ez da errentagarria. Antzina, mendian ibiltzen zen, solte, eta familiek urtean behin-edo harrapatu egiten zuten. Zaila eta arriskutsua izaten zen, basatiak dira-eta. Goizueta aldean, esaterako, txahalak apartatu egiten zituzten eta arrak kapatu. Sokamuturretarako ere erabiltzen ziren.



Atzo hasi zen Korrika Tuteran, eta apirilaren 2an iritsiko da Elgoibarrera.

## Egingo duzu korrika euskararen alde?



**Patricia de La Rosa**  
24 urte, administraria

Ez, korrika egitea ez da nire zaletasuna, eta ez dut horrelako ekin-tzetan parte hartzen. Sekula ez dut parte hartu izan Korrikan. Euskaraz egiten dut, eta euskararen aldeko ekimenak egitearen aldekoa naiz, baina korrika ez. Hala ere, garrantzi-sua dela iruditzen zait.



**Javier Correa**  
35 urte, langabetua

Ume txikia daukat, eta aurten ez dut parte hartuko. Hala ere, beste urte batzuetan hartu izan dut parte: Eibarkoa naiz eta gogoratzen dut urte batean gauez iritsi zela Korrika herrira, eta oso gustura ibili ginen. Korrikaren inguruan sortzen den giroa oso polita da.



**Mª Jesus Soto**  
26 urte, autonomoa

Bilbon bizi naiz, eta ez dakit noiz pasatuko den Korrika bertatik. Parezan tokatzen bada, akaso hartuko dut parte. Nire lagunek noizbait egin izan dute korrika euskararen alde, baina nik ez. Dena dela, euskarari bultzada emateko ekimen garrantzi-sua da.



**Iñaki Rivero**  
51 urte, podologoia

Ez dut uste, azken urteotan lagata daukagu. Lehen beti hartzen genuen parte, eta oso ondo pasatzen genuen, gainera. Euskararen aldeko ekimenak antolatzea garrantzitsua da, eta orain daukagun egoera ikusita gainera, lehen baino garrantzitsuagoa.



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

*PREST*



**UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!**

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

# ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinaraziz!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**APIRILAK 25 - 11:00** larunbata **MAIATZAK 7 - 17:30** osteguna

**ARRASATE-MONDRAGÓN** AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // [bguerenu@eps.mondragon.edu](mailto:bguerenu@eps.mondragon.edu)

**MARTXOAK 28 - 11:00** larunbata

**ORDIZIA** AULA MAGNA Tel.: 943 88 00 62 // [eurkia@golierrieskola.org](mailto:eurkia@golierrieskola.org)

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**APIRILAK 4 - 10:00-13:00** larunbata

**ONATI** AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // [cgarate@eteo.mondragon.edu](mailto:cgarate@eteo.mondragon.edu)

**APIRILAK 2 - 18:00** osteguna

**IRUN** AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // [loiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu](mailto:loiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu)

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**APIRILAK 23 - 18:00** osteguna

**ESKORLATZA** AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // [sarrera@huhezi.mondragon.edu](mailto:sarrera@huhezi.mondragon.edu)



## Gure berbak

### Aditz trinkuak: Aditz trinkuen adibidiak

Aste Santu aurretiko bi aste hónetan, aditz trinkuen erabilleria argitzeko adibidiak ekarriko ditut, aurreko zutabietan batez ere aditz-formak jaso nituan eta. Hona aditz iragangaiz batzuk:

- ♦ (...) *bakarrik, batzutan, gitxittan, baiña haura kalera dixenian, bakarrik.*
- ♦ *Erderaz ere edarki etortzen dok hori, baiña enajiek erderaz eittera hemen.*
- ♦ *Berrogeta bost eguneko permisuaikin etxera. Eta tallarran nabixan lanian, eta bueno, etxera etorritta, zeoze irabazi egin bihar.*
- ♦ *Eta basarrixan zaudenak egoten zittuan kaleko langillien tallarran, gu bezela tallarran zabizenen zai.*
- ♦ *Entzunda hao sekula holakorik?*
- ♦ *Urruti naok?*
- ♦ *Andra gaztiak eta, bizkaitarrak eta, daure asko Elgoibarren.*
- ♦ *Hemen bajauan, baiña garixa ixotzekorik ez. Artuanak bai, bajauazen, baiña etxauen lagatzen.*
- ♦ *Irunen gauazen, eta handik jaiero etortzen giñuazen.*
- ♦ *Girua daok oiñ edarra.*
- ♦ *Gurian lau lagun gauaz, eta hiru kotxe dauaz. Eta neu naok kotzerik pe.*
- ♦ *Mendixan-da lan txarrak badauaz oiñ ere.*
- ♦ *Eta pentsa'ik, haura hil tzala ointxe datuaz hamar urte.*
- ♦ *Baiña zeñ izan leikien ez naiz konturatzen. Kurutzetakuak honek ez al dira ba hamen residentzian daozen honek?*
- ♦ *Gero pentsau jua Zaragozara eruatia. Han jauazen beste bi taller txiki, eta harekin bat ein jua hirurak.*
- ♦ *Tallar batera sartu zien aittak eta amak. Gerria jatuan, ba, gerria zatorren, eta tallarra sartu nitzan.*

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1971

Joseba Etxeberriak laga digu aste honetako erretratu. Ikastolaren Parrokiako gela batean aterata dago, eta esan digu oso gustura joaten zirela denak Ikastolara. Gogora ditzagun gazte horiek:

**Goian, ezkerretik eskumara:** Juan Mari Zubelzu, Iñaki Etxeberria, Jesus Etxabe, Imanol Galarraga, Miren Amaia Larrañaga, Ane Miren Arozena, Olga Abinzano, Iñaki Muguruza, Jose Mari Bastida, Xabier Zabaleta, Sorkunde Juaristi.

**Bigarren ilaran:** Antxon Aldanondo, Karmelo Etxeberria, Jose Antonio Agirregomezkorta (†), Xabier Osoro, Kepa Arriola, Txomin Urdanpilleta (irakaslea), Fernando Perez, Xabier Artola, Arantzazu Gorosabel, Maite Urain, Sara Pagola.

**Hirugarren ilaran:** Jose Ignacio Zengotita, Iñigo Etxaniz, Cesar Arriola, Irune Iriondo, Iñaki Argarate, Ana Mari Eguren, Amaia Jaio, Jaime Arrese, Marta Iraegi, Junkal Txurruka, Amaia Zabala, M<sup>e</sup> Elena Galdos, Esther Agirre.

**Behan:** Mirari Igartua, Aintzane Larreategi, Milagros Arakistain, Jon Iñaki Gabilondo, Sabin Uriguen, Joseba Etxeberria.



## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENeN argitaratzeko  
erretratu zaharrak baldin badituzu,  
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.  
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)

## Inazio Bereziartua musika eskolako akordeoilariak Sabadellen joko dute gaur

Soinuentzako konposatutako piezak joko dituzte beste hiru talderekin batera

**E**lgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako akordeoi taldea Sabadelle-ra joan zen atzo, gaur kontzertua eskaintzeko. Beste hiru musika eskolako talderekin batera (Barañain, Gares eta Eguesibar) joko dituzte akordeoiarentzat prestatutako alegiak (fabulak).

Elgoibarko hamar ikasle, lau guraso eta Maite Janeiro irakaslea joan dira Sabadellera. Liburutegiko auditorioan egingo dute gaurko kontzertua.

### Ekainean, Elgoibarren

Alegia horiek Barañainen eta Eguesibarren ere joko dituzte maiatzean (9an Barañainen eta 10ean Eguesibarren). Elkartrukea izanda, Sabadelleko ikasleek ere parte hartuko dute.

Ekainaren 21ean, berri, Elgoibarko Herriko Antzokian entzun ahal izango dira lau akordeoi taldeak.



## Jasone Osororen 'Jara' liburua gazteleratu dute



Nerabeen artean *Jara* fenomeno arrakastatsua dela ikusirik, Alfaguara argitaletxeak gaztelerara itzulita plazaratu du Jasone Osororen *Jara* liburua. Jatorrizkoa, euskaraz, 2001ean kaleratu zuen idazle elgoibartarrak.

Beste liburu bat idazten ari dela aurreratu du Osorok primizian. Liburu hori ere haur eta gazte literaturako irakurleentzako izango da. Hurrengo lan horretan, baina, "mutil bat izango da protagonista", aurreratu du.

### Oinarrizko tornu ikastaroa emago du Lurkik

Lurki Zeramika Tailerrak oinarrizko tornu ikastaroa antolatu du apirilera. Hilaren 6an hasiko dira buztina lantzeko teknika irakasten, eta maiatzaren 7ra arte iraungo du. Ikastaro horiek astelehenetik eguenera izango dira, eta hiru ordu iraungo dute: 18:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago lortzeko, eta izena emateko, Plaza Txikiko lokaletara jo (behean, ezkerretan), edo 677 466 944 zenbakira deitu.



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behean  
Pel. Oitso - Oitsope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 748 570

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zoluek ezartzea  
Lakadura: egur, aluminio, PVC  
Pintura orokorra



# ELENA

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49 -1      Tel: 943 741 189

# ‘Axeri boda’ euskal dantzen ikuskizuna Elgoibarrera ekarriko du Haritz dantza taldeak datorren barixakuan

Lau talderen arteko elkarlana da Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako lana


**A**spaldiko axeri-dantzaren erritual indartsuari omenaldia eskaintzen dio *Axeri boda* euskal dantzen ikuskizunak. Euskal ohiturako jantzi eta dantzez atonduta dator Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako ikuskizuna Elgoibarrera. Apirilaren 3an izango da emanaldia, 22:15ean, Herriko Antzokian.

## Lau dantza talde elkarlanean

Elgoibarko Haritz taldeko dantzariekin batera, Ikerfolk-Argia, Duguna eta Kezka taldeetakoek dihardute *Axeri boda* ikuskizunean.

Sarrerak joan den astelehenetik daude salgai: goizez Kultura Sailean, eta arratsaldean, Gazte Informazio Bulegoan. Emanaldirako sarrera horiek zortzi euro eta erdi balio dute, eta erosteko orduan Gazte Txartela erakusten dutenentzat sei euro.

Emanaldirako sarrera bat nahi izanez gero astelehena, hilak 30, baino lehen eskatu behar da Kultura Sailera joanda edo 943 742 158 telefono zenbakira deituta.



## Soinu Zahar Txapelketako kanporaketan parte hartuko dute bihar Elgoibarko neska dantzariak Billabonan



Soinu Zahar Txapelketako kanporaketa Billabonan izango da bihar, zapatua. Nesken arteko norgehiagoka horretan Elgoibarko neska dantzariak izango dira.

Martxoaren 14an, bestalde, Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako beste jardunaldi bat jokatu zen Oartzungo udaletxeko areto nagusian. Inazio Bereziartua dantza eskolako hiru dantzari hartu zuten parte txapelketan: Aitor Asenjok, Andrea Arregik eta Miren Astigarraigak. Maila oso ona erakutsi zuten hirurek.

B saileko (11-15 urte) neska-mutilak lehiatu ziren, eta Elgoibarko- en emaitzak hauek izan ziren: mutiletan hamar dantzari hartu zuten parte, eta Aitor Asenjok bigarren postua lortu zuen; nesketan, ordea, hogeik parte hartu zuten, eta Andrea Arregi hirugarren gelditu zen, eta Miren Astigarraigak, zortzigarren.



## BATZAR OROKORRA

Martxoak 30, astelehena  
19:00etan  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

## EGITARUA

1. Lehendakariaren agurra
2. 2008ko MEMORIA
3. 2009ko HELBURUAK eta AURRERKONTUAK
4. 2009-2011 urteetarako BARNE ARAUDIA
5. Galdera-erantzunak

Elkarteko bazkide guztiok gonbidatuta zaudete Batzar Orokorrera.

# ALBERTO FERNANDEZ

Eskalatzailea

Hogei urteko elgoibatarra da Alberto Fernandez eta mantentze-lanetako ziklo bat egin berri du IMHn. Bere zaletasunetako bat alpinismoa da: denetik egiten du, baina, batez ere, eskalatu. Orain dela lau urte inguru hasi zen, eta aurtengo neguan bide berri bat kateatu du Izas bailaran. Eskaladari buruz berba egin du BARREnek berarekin.



## “Prestatu gabeko lekuak gehiago gustatzen zaizkit emozio handiagoa dutelako”

**Lau urte eskalatzen hasi zinenetik, zelan hasi zinen?**

Betidanik ibili izan naiz mendian, txiki-txikitatik, eta eskalatzea beste pausu bat izan da. Biak gustatzen zaizkit, mendira oinez igotzea zein eskalatzea gustatzen zait. Baina, ahal izanez gero, eskalatzea nahiago dut.

**Zer esaten dizute etxean eskalatzearen inguruan?**

Kontuz ibiltzeko esaten didate beti, baina badakite zer dagoen, eta lasai-edo geratzen dira. Orain dela hilabete batzuk susto bat eduki nuen lagun batekin: gaizki erori zen, eta eskumuturra hautsi zuen. Baina sustoa bakarrik izan zen

**Non ibili zara eskalatzen?**

Pirinioetan eta Alpeetan ibili naiz eskalatzen. Eta etxetik gertu kirol eskalada egiten dut. Pirinioetara joatean, ostera, paretak igotzen ditut.

**Zer ezberdintasun dago kirol eskaladaren eta eskalada librearen artean?**

Kirol eskalada luze batekoa izaten da: igo eta jaitsi. Eta ekipatuta egoten da: mosketoia segurtatzeko tokia jarrita dago. Pirinioetan, paretak luzeagoak dira, eta babeslekuak zuk zeuk sortu behar di-

tuzu. Lehenengoa seguruagoa da, baina ekipatu gabeko lekuak gehiago gustatzen zaizkit emozio handiagoa dutelako.

**Lehiaketetan inoiz parte hartu duzu?**

Ez dut sekula parte hartu. Eskalada afizioa da niretzako; ez lehiatze.

**Zer eskalatu nahiko zenuke?**

Helburu asko dauzkat, baina bat esatearren, Himalaiako paretak bat-edo. Baina hori urrutira begira. Bestela, Alpeetan ere badaude toki interesgarriak.

**Eskalatzeko zer behar da?**

Gogoa, batez ere. Elastikotasunak laguntzen du, baina pixkanaka hasi eta hori hobetzerik badago. Horrekin batera, materiala eta dirua behar dira. Inportantea da dirua.

**Hasitako lana amaitzeak min guztiak kentzen ditu?**

Bai. Paretak handi bat igotzen duzunean, jaisterakoan nekatuta zaudete, baina lana egin izanaren poza sentitzen dut. Berdin zait gorputz erdi minduta edukitzea. Eguraldiak laguntzen duenean, eta lagunak prest izanez gero, mendira joaten naiz.

# Aste Santuan ere Kirol Kanpusa egingo dute

Izena emateko epea apirilaren 1ean amaituko da

**K**irok Kanpusa antolatu du Udal Kirol Patronatuak Aste Santurako. Lazko udan kanpusak izandako harrera ona ikusirik (ehun partaide izan zituen), aurten Aste Santuan ere antolatzeko erabakia hartu dute. Egun horietan, Gorka Sastre eta Unai Etxeberria irakasleen zuzendaritzapean, Mintxetan eta Olaizaga kiroldegian, hainbat kirol egiteko aukera izango dute zortzi eta hamahiru urte bitarteko haurrek. Izenemate epea martxoaren 23tik apirilaren 1era irekita egongo da, Olaizaga kiroldegian.

Haurrek hiru aukera izango dituzte, iraupena kontuan hartuta: hiru egun (apirilak 6, 7 eta 8), prezioa: 22 euro; lau egun (apirilak 14, 15, 16 eta 17) prezioa: 29 euro; eta zazpi egun (apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17) prezioa: 49 euro.



ro; eta zazpi egun (apirilak 6, 7, 8, 14, 15, 16 eta 17) prezioa: 49 euro.

## Gaur eta bihar, igerilekua itxita

Elgoibarko Olaizaga kiroldegiko igerilekuan sabaia konpontzeko lanak egin behar dituztela eta, ezin izango da igerilekua erabili eta itxi egin behar izango dute. Gaur, barixakua, egun osoan itxita egongo da igerilekua, eta bihar 16:00ak arte ezin izango da erabili.

## Emakumeak autodefentsa ikastaroan



Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa egin zuten martxoaren 13an, Berdintasun Sailak eta Kirol Patronatuak elkarlanean antolatuta. Elgoibarko 23 emakumek hartu zuten parte. Egoera zailen aurrean euren burua defendatzeko hainbat teknika irakatsi zizkien Luis Agirregomezkorta Espainiako entrenatzaileak.

## EMAITZAK

### ESKUBALOAIA

Tecnifuelle Elgo. 41 – Villamediana 13 (Sen.nesk.)  
Leizaran 19 – Cometel Elgo. 19 (Jub.nesk.)  
Basauri 14 – IMH Elgo. 22 (Kad.nesk.)  
Alcorta Elgo. 35 – Groseko 24 (Sen.mut.)  
Pulpo 38 – Pneumax Elgo. 39 (Kad.mut.)  
Usurbil 20 – Ikus Elgo. 13 (Kad.nesk.)  
Astigarraga Elgo. 22 – Aiala Zartz 19 (Inf.nesk.)  
Aterpe Elgo. 27 – Aiala 14 (Inf.nes.)  
Txingudi 24 – Bankoa Elgo. 31 (Inf.mut.)  
Pulpo 19 – Txarriduna Elgo. 14 (Inf.mut.)

### FUTBOLA

Elgoibar 2 – Santurtzi 0 (Haundi)  
Orioko 0 – Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Elgoibar 8 – Intxaurren B 1 (Jub.)  
Elgoibar 3 – Añorga 4 (Kad.)  
Touring 1 – Elgoibar 2 (Kad.)  
Elgoibar 4 – Sto. Tomas Lizeoa 1 (Inf.)  
Elgoibar 4 – Sporting Herrera 1 (Txik.)  
Elgoibar 3 – Arizmendi 1 (Nesk.)  
Elgoibar 3 – Anaitasuna 2 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Ancla 5 – Kenci 4 (Nazional B)

### SASKIBALOAIA

Eskibel 17 – Anbolo 19 (Kad.)

### ESKU PILOTA

Lagunak 4 – Bergara 22 (Kad.)  
Lagunak I 22 – Eibar 21 (Nag.)  
Lagunak II 22 – Bergara 11 (Nag.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

15:45 Kenci – Laskorain (Nazional B)

### SASKIBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 28

13:00 Anbolo – Mundaiz (Kad.)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28

11:00 Elgoibar – Allerru (Kad.)

16:30 Elgoibar – Bergara (Reg.)

### ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

11:30 Bankoa Elgo. – Arrate (Inf. mut.)

17:30 IMH Elgo. – Aloña Mendi (Kad. nesk.)

19:00 Cometel Elgo. – Ereintza (Jub.nesk.)

Domeka, 26

09:30 Pneumax Elgo. – Bergara (Kad. mut.)

11:00 Ikus – Aiala (Kad. nesk.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakume euskalduna, pertsona nagusi, hezindu eta gaixoak zaintzeko prest.  
☎ **615 762 742 (Josefina)**
- Emakumea, etxeko lanak, garbiketa eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest.  
☎ **646 235 195 / 636 362 251**
- Bi emakume, garbitzaile makina bereziekin alfonbra, bulego, etxeak, etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe.  
☎ **638 944 604 (Irene) / 695 708 271 (Itsaso)**
- Etxeko lanetarako emakumea eskaintzen da (nahia-go arratsaldez)  
☎ **943 74 32 51**
- Emakume nagusiak edo haurrak zaintzeko prest, edo garbiketa lanak egiteko prest. Egunez zein gauez.  
☎ **671 476 869**
- Neska gaztea, zerbitzari lanetan edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ **660 441 505**
- Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest.  
☎ **639020 180**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **617 958 400**
- Mutila galdaragintza edo soldaketa lanak edota garbiketa eta pintura lanetarako prest.  
☎ **617 958 400**
- Emakumea lanerako prest, haurrak edo nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan. Orduka edo interna.  
☎ **678 879 024**

- Mutila lanerako prest, igeltsertizan, gidari gisa, komertzioan edota zamallanetan  
☎ **660 213 652**

**ESKANTZA**

- Sukaldari laguntzailea behar da.  
☎ **943 74 31 96**
- Zerbitzaria behar da.  
☎ **943 74 16 00**
- Elgoibarko kirol instalazioetan, harreran lan egiteko jendea behar da. Euskara eta informatika ezagutzak derrigorrezkoak. Harremanetarako, deitu telefonoz Igeriketa Lantzen enpresako honako zenbakira:  
☎ **685 755 799**
- Ordenagailuak konpontzen ditut, etxez etxe. Oso prezio onean.  
☎ **630 850 390**

**ETXEBIZITZA**

**SALGAI**

- Etxebizitza salgai Arregitorren, egoera onean. Sukaldea, 3 logela, bi komun, egongela eta ganbara. 225.000 € (aukera ona).  
☎ **696 266 982**

**ALOKAGAI**

- Nonilen (Cadiz) apartamentua alokagai, 3 logela, terraza, bista onak eta garajea. Erdigunean. Igogailua.  
☎ **653 733 457**

- Elgoibarren logela bat alokatu nahiko nuke.  
☎ **664 118 757**
- Benidorm. Apartamentua alokatzen da erdigunean, hondartzatik oso gertu eta egoera onean. Prezio paregabea.  
☎ **943 74 06 28**

**LOKALAK**

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia  
☎ **943 741 436**

**MOTORRA**

- Hyundai Furgoneta salgai. 7 eserleku. Erremolkerako bola dauka. 130.000 km. Beira tindatuak. 8.000eur o.  
☎ **660 027 976**

**BESTELAKOAK**

- 2 hektorea inguruko lursail bat salgai Azkaratetik Azkoitira bitartean.  
☎ **671 977 171**
- Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak, ohe-erropa (izarak, mantak, edredoiak, koltzak), gortinak eta alfonbrak. ☎ **676 444 171**

ESKERTZA



## MIREN IZAR ERKIAGA GOITIANDIA

2009ko martxoaren 19an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



## VISITACION GARATE ELORZA

2009ko martxoaren 20an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



## JUAN CANALES VALLEJO

2009ko martxoaren 18an hil zen, 79 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **Maren**, hilaren 19an 6 urte bete dituzulako. Muxu handi bat Unax, Joaquin eta Bearen partez.



• Zorionak, **Gorkall** Astelehenean hiru urtetxo beteko dituzulako. Zorionak ama-txo Cristinari ere!




• Zorionak, **Julen**, domekan 6 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, bereziki Danelen partez.



• Zorionak, **Ainara**, familia guztiaren partez. Bereziki Aitorren eta Leireren partez.



• Zorionak, **Joni** Datorren astelehenean 10 urte beteko dituzu. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Haritz**, atzo urtebete egin zenuelako. Muxu handi bat etxeokoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, domekan 2 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako-en partez eta bereziki Malenen partez.



• Zorionak, **Malena**, Joan den domekan 7 urte egin zenituelako! Gurasoen partez eta bereziki anaia Jonen partez.



• Zorionak, **Bepiat**, laugarren urtebetetzean etxeokoen partez. Bereziki lehen-gusina Nahia eta Maiteren partez.



• Zorionak, **Julen**, datorren astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Muxu pila guraso eta Naiaren partez.



• **Udaberriko loretxoari** zorionak, 11 urte egin dituelako. Muxu bat etxeokoen eta Iratiren partez.



• Zorionak, **Unax**, atzo 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako-en partez eta bereziki Dunaren partez.




• Zorionak, **Jon**, eguaztenean bi urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeokoen partez.



• Zorionak, **Ezoz**, zure urtebetetzea izan delako. Muxu handi bat lankideen partez. Aupa amatxo!!



• Zorionak, **Maia**. Mila kilo zorion eta muxu asko zure hirugarren urtebetetzean, familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Ane!!!** Hilaren 19an 2 urtetxo egin dituzu. Patxo handi bat ikastolako laguntxoan partez.



• Zorionak, **Sonia**, martxoaren 25ean zure urtebetetzea izan delako, familia eta lagunaren partez. Oso ondo pasa. Mila milioi muxu.



• Zorionak, **Enara**, martxoaren 25ean 6 urte bete dituzulako, familiako-en eta lagunaren partez, bereziki aita, ama eta Aneren partez.



• Zorionak, **Ane eta aitaxo**, urteak egin dituzuelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Jens eta Sonia**, martxoan urteak betetzen dituzuelako. Elgoibarko lehengusu eta iloben partez. Muxu handi bat!



• Zorionak eta ondo pasa domekan etxeokoen guztien ize-nean.



• Zorionak, **Maite**, martxoan urteak egingo dituzulako. Elgoibarko lehengusuen partez muxu bat.



• Zorionak, **Nora eta Andrea**, martitzenean 7 urte bete zituztelako.

## OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali. Tel.: 943 744 112

## OKINDEGIA

29 domeka **IBARRENA**

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

27	Fernandez
28	Yudego
29	Yudego
30	Zabaleta
31	Etxeberria ( <i>Errosario</i> )
1	Ibañez
2	Garitaonandia
3	Etxeberria ( <i>Santa Ana</i> )

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 16 38

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 75 61 42

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 75 13 84

## INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 27 barixakua

### Jaialdia

**19:00** Ikastolako jaialdia  
Ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleen jaialdia. Ikastolako frontoian.

### Musika

**22:15** Benito Lertxundi  
Orioko musikariak disko berria aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## 28 zapatua

### Feria

**9:00** Azken zapatuko feria  
Hileko azken zapatuko feria egingo da Nafarroa Plazan. Baserriko produktuak erosteko aukera izango da, ganadudunek animaliak jarriko dituzte ikusgai eta trikitilariak alaituko dute giroa. Erosleen artean, apirileko ikuskizunetarako bi sarrera zozketatuko dituzte.

### Kizola

**10:30** Pilota Eguna  
Elgoibar Ikastolak antolatuta, Pilota Eguna izango da. Ikastolako frontoian.

### Gazte eguna

**13:00** Debarrenen gazte eguna  
Harrera ekitaldia Plaza Handian. Ondoren, trikipoteoa, bazkaria, jolasak, manifestazioa eta kontzertuak. Gaztetxean.

## 29 domeka

### Batzarra

**11:30** Filatelia elkartearen urteko batzarra  
Aitzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak, batzar nagusia egingo du. Elkartearen lokalean.

## 30 astelehena

### Arte tailerra

**17:00** Itsas-elizak  
Haizeak antolatuta, itsas-elizak landuko dituzte. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Batzarra

**19:00** Elgoibarko Izararren batzar orokorra  
Elgoibarko Izarra kultur elkarteak bazkideen urteko batzarra egingo du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 31 martitzena

### Literatura tailerra

**18:00** 'Madame Bovary'  
Haizeak antolatuta, *Madame Bovary* liburua landuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

# 16. korrika æk

<p><b>2 EGUENA</b> <b>KORRIKA 16</b> <b>15:15</b> Korrika txikia Ikastetxeetako ikasleek euskararen alde egingo dute korrika. Ermuaranbideko errotondatik irtengo dira.</p>	<p><b>19:30</b> Mauxitxa txarangaren kalejira <b>20:00</b> Afari merienda Plaza Txikiko arkupeetan. <b>21:00</b> Mauxitxa txarangaren kalejira <b>22:15</b> Korrikari ongi-etorria Ermuaranbideko errotondan.</p>
---	---

### «El curioso caso de Benjamin Button»

28, zapatua: 19:00/22:15  
29, domeka: 19:00  
30, astelehena: 21:30

### «El valiente desesperaux»

29, domeka: 16:30





## 1 eguaztena

### Hitzaldia

19:00 Herri batzarra

Elgoibarko Ezker Abertzalekoek hauteskundeen balorazioa egin eta aurrera begirako ildoak landuko dute.

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 2 eguna

### Hitzaldia

20:00 Ostegun bidaiariak

Ane Garmendia elgoibartarrak Dolomitara eginiko bidaiaren azalpenak emango ditu. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 3 barixakua

### Dantza

22:15 'Axeri boda'

Axeri boda, euskal dantzen ikuskizuna. Herriko Antzokian.

## ORDU ALDAKETA, ZAPATUAN

ORDU ALDAKETA EGIN BEHARKO DA MARTXOAREN 29AN, HAU DA, ZAPATUTIK DOMEKARAKO GAUEAN. ORDULARIAK ORDUBETE AURRERATU BEHAR DIRA, ETA GOIZEKO 2:00ETAN 3:00AK IZANGO DIRA.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Argazkigintza digitala

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-04-20 / Bukaera data: 2009-05-27

Non: Eibarren

Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Geriatria

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-04-20 / Bukaera data: 2009-05-04

Non: Eibarren

Izenematea: 943 176 248

### Sinbologia eta kode normalizatuak

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-04-27 / Bukaera data: 2009-05-12

Non: Elgoibarren

Izena emateko: Kontsultatu

### Negoiazio teknikak

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-04-14 / Bukaera data: 2009-04-23

Non: Elgoibarren

Izenemate bukaera: Apirilak 14

### Web diseinua

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-04-27/Bukaera data: 2009-05-07

Non: Elgoibarren

Izena emateko: Apirilak 27

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

**HAIR'S**  
ILEAPAIN DEGI

San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

txatxaran

## Ane Garmendia



Ane Garmendiak joan den abuztuan Dolomitetara (Italiara) egindako bidaia kontatuko du, apirilaren 2an, *Ostegun Bidaiariak* hitzaldien zikloan. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da hitzordua, 20:00etan. Udako oporretan kirola egin eta eguzkia hartzeko astia eduki zuen Garmendiak, eta udako bizipenak kontatuko ditu.

### “Gomendatzeko moduko tokia dira Dolomitak, natura gustatuz gero”

**Joan den abuztuan hiru aste eman zenituen Dolomitetan.**

Mutila eta biok joan ginen oporretan. Bi aste Dolomitetan bertan egin genituen, mendian, eta azken astean Italiako Iparraldera jaitsi ginen pixka bat erlaxatzera. Azken batean, mendian egun guztian zerbait egiten egon ginen, eta eguraldia ere aldakorra da. Fresko egiten du, eta eguzki pixka bat hartu eta botata egoteko gogoia ere bageneukan azkenerako. Gainera, gertu dago, bi ordu inguru behar dituzu iristeko.

**Eta etxetik zenbat behar izan zenuten Dolomitetara iristeko?**

Furgonetaz egin genuen bidaia, eta etxetik irten eta Narbonan geratu ginen lehen egunean: Pirinioak gurutzatu genituen alde batetik bestera, eta zortzi ordu inguru behar izan genituen horretarako. Narbonatik Verona arte joan ginen hurrengo egunean. Hamabi ordu

behar izan genituen horretarako. Gardako lakua dago han, eta bertan eman genituen pare bat egun. Iparraldea bisitatu genuen, Veneziaraino joan ginen, eta gero Dolomitetara.

**Zein kirol egin zenuten Dolomitetan?**

Ekipo guztiarekin joan ginen. Furgoneta bete-bete eginda eramán genuen, eta eguraldiaren arabera aukeratu genuen zer egin. Mendiko bizikleta eramán genuen, eta argi daukat berriro bueltatuz gero, errepideko bizikletarekin joango garela. Baina hara jotzen denari aurrez kirol aktibitate bat aukeratu joatea gomendatzen diot. Dena egitea ezinezkoa da.

**Oporretako helburua kirola egitea zen?**

Helburua gune hura ezagutzeta zen, eta natura aldetik eskaintzen dizuna sekulakoa da: ez dauka zerikusirik Pirinioekin. Gainera, ez da gazteentzat bakarrik: parke tematiko bat bezalakoa da, eta edadeko jendea

ere ikusten duzu han. Edozein puntataraino, 3.000 metrotaraino, teleferikoak dituzu. Izan ere, neguan eskiatzeko pistak dira. Urruti geratzen da, eta ezin da astebetarako bakarrik joan, baina natura gustatuz gero, gomendatzeko moduko tokia dira Dolomitak.

**Udako oporrak iritsi eta hondartzara beharrean, kirola egitea nahiago?**

Bien konbinazioa gustatzen zaigu. Lehen asteetan zerbait egin, eta gero beroa eta erlaxatzera. Baina beroa zerbait egin ondoren, gehiago gozatzen duzu.

**Ostegun bidaiariak hitzaldi zikloan hartuko duzu parte, zer iruditzen proiektua?**

Egon ez zaren toki batzuez jakin eta hara joateko grina sortzen zaizu. Informazio asko jaso dezakezu bertan, eta Naiara Martinek eskuorriak prestatzen ditu informazio gehiago lortzeko.



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Garcia

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilloia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Lelhoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
www.fjlodoso.euskalnet.net

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.es  
www.excavacioneslekunberri.com



## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**  
Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**  
Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87

### Desigual

San Inazio, 5 behea  
☎ 943 748 925  
☎ 677 846 069  
Faxa: 943 531 502  
pinturasdesigual@hotmail.es

# “AXERI BODA”


Euskal dantzen ikuskizuna



**Apirilaren 3an,  
ostirala,  
22:15ean  
Herriko Antzokian**

# “Kanpanilla eta Peter Panen itzala”

**APIRILAREN 19AN,  
IGANDEA,  
16:30EAN  
HERRIKO ANTZOKIAN**



Aktoreak  
ARANTZA ARTEAGA  
IRAITZ LIZARRAGA  
JORGE SANTOS

Zuzendaria  
BEGOÑA BILBAO

**TXALO**



Elgoberko Udala  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritz



SAREA